

Exigimos que se paralicen los proyectos del TAV y que todo ese dinero se destine a la sanidad

COLECTIVOS Y ORGANIZACIONES DE ARABA Y NAFARROA CONTRA EL AHT/TAV ::
08/04/2020

Las plataformas de Araba y Nafarroa exigimos que se paralicen los proyectos del TAV y que todo ese dinero se destine a la sanidad

[Euskara]

Araba eta Nafarroako plataformek AHTaren proiektuak bertan behera gelditu eta diru guzti hori osasunera bideratzea eskatzen dugu

Abiadura Handiko Trena (AHT) arbuiatzen dugun eta egungo trenbide-korridoreak behar bezalako hobekuntzekin erabiltzea eskatzen dugun Araba eta Nafarroako erakunde, kolektibo eta plataformek, bizitzen ari garen momentu berezi honetan horrelako proiektuen zentzugabekeria salatu nahi dugu berriro ere.

Egunez egun ikusten ditugu gainezka dauden ospitaleak, osasun-langileak txandak bikoizten, abandonatutako adinekoen egoitzak, jendea bakardadean hiltzen, ospitale inprobisatu bihurtutako hotelak, pertsonak maskarak egiten haien etxeetan... Hori guztia, gobernu desberdinek urteetan osasungintza eta gizarte-zerbitzuak bezalako arloetan egin dituzten murrizketen ondorioz gertatu da batez ere, zerbitzu horien etengabeko hondaketa eraginez. AHTa bezalako azpiegitura handi eta alferrikako horiek hazi egin dira beste esparru batzuetan aurrekontuak murrizten ari zirenean ere, guztion diruarekin hiri-sektoreen eta erosteko ahalmen handiko sektoreen aberastasunari legez kontra mesede eginez.

Estatu espainiarra da, alde handiz, biztanleko AHT kilometro gehien dituen, eta, hala eta guztiz ere, erabilpenari dagokionez azken postuan kokatzen da, kilometro bakoitzeko bidaiariaren ratorik baxuena izanik. Gainera, Europako Garraio Batzordetik kritika zorrotzak jaso dituen arren, gobernuak abiadura handiko tren-korridore gehiago eraikitzen jarraitzen du, kontu publikoetan egindako gastu izugarria zein ingurumenaren eta lurraldearen aurkako erasoak justifikatzen duen inolako txosten edo azterketarik gabe. Hau guztia, inolako errentagarritasun sozio-ekonomiko edo ingurumen errentagarritasunik frogatu gabe.

Egoera larri hau etorkizun hurbil batean gainditzea eta gizartea modu eredugarri batean ematen ari den laguntza eta elkarlanerako erantzun soziala ez etetea espero dugu, oraindik ere pixka baterako izango dugun momentu kritiko honi aurre egin ahal izateko. Botere politiko eta ekonomikoei berriro gogorarazi beharko diegu langabeziaren aurrean, murrizketen aurrean, ingurumen krisiaren aurrean, irtenbidea ez dela ekonomia, ingurumen eta ondare naturalaren aurka egiten duten azpiegiturak eraikitzea.

Gaur, osasunaren nazioarteko eguna den honetan, **obrak eta proiektu berriak, lizitazioak eta AHTa garatzeko egiten ari diren administrazio-kudeaketak berehala**

geldiaraztea eskatzen dugu, eta abiadura handiko trenen alferrikako plataformetan xahutu nahi dituzten milaka milioi euroak osasunera eta gizarte-zerbitzuetara bideratzea. Era berean, egungo trazatuak hobetzea eta mantentzea proposatzen dugu, herriak, hiriak eta industrialdeak lotuko dituen eta bidaiariak zein merkantziak garraiatuko dituen tren sozial bat eduki ahal izateko, lurraldean eremu isolaturik utziko ez duena eta ekonomikoki edonorentzat eskuragarria izango dena.

[Castellano]

Las organizaciones, colectivos y plataformas de Araba y Nafarroa que rechazamos el Tren de Alta Velocidad (TAV) y que exigimos la utilización de los corredores de ferrocarril actuales con las mejoras oportunas, queremos denunciar hoy más si cabe, el sinsentido de este tipo de proyectos.

Observamos día tras día hospitales saturados, personal sanitario doblando turnos, residencias de mayores abandonadas a su suerte, gente muriendo en soledad, hoteles improvisados como hospitales, personas fabricando mascarillas y caretas en sus casas... Todo ello es debido fundamentalmente a los recortes que los sucesivos gobiernos han aplicado durante años en cuestiones como la sanidad y los servicios sociales, produciendo un deterioro continuo de los mismos. Estas grandes e innecesarias infraestructuras como la del TAV, han crecido incluso cuando en otros ámbitos se recortaban los presupuestos, favoreciendo ilícitamente el enriquecimiento de sectores urbanos y de alto poder adquisitivo con el dinero de todos y todas.

El estado español es, con mucha diferencia, el que más kilómetros de TAV tiene por habitante y, a pesar de ello, se sitúa en el último lugar en cuanto a su utilización, teniendo el ratio más bajo de pasajeros por km. Además, aunque ha recibido críticas contundentes de un organismo como la propia Comisión Europea de Transportes, el gobierno continua construyendo más y más corredores ferroviarios de alta velocidad sin ningún tipo de informe o estudio que justifique el gran gasto en las cuentas públicas, así como el ataque al medio ambiente y al territorio que se produce. Todo esto, sin haber demostrado ninguna rentabilidad social, económica o medioambiental.

Esperamos poder superar esta grave situación y que la respuesta social de ayuda y colaboración mutua que está mostrando la sociedad de una manera ejemplar, continúe para hacer frente al momento crítico que nos tocará seguir viviendo. Tendremos que volver a recordar a los poderes políticos y económicos que, frente al desempleo, frente a los recortes, frente a la crisis ambiental, la solución no pasa por infraestructuras que atentan contra la economía, el medio ambiente y el patrimonio natural.

Hoy día mundial de la salud, **exigimos la inmediata paralización de las obras y de los nuevos proyectos, licitaciones y cuantas gestiones administrativas se estén llevando a cabo para el desarrollo del TAV, y que los miles de millones de euros que pretenden dilapidar en plataformas innecesarias de trenes de alta velocidad se destinen a la salud y a los servicios sociales.** Así mismo, proponemos la mejora y mantenimiento de los trazados actuales para tener un tren social que una pueblos, ciudades

y zonas industriales; que transporte tanto mercancías como pasajeros, vertebrando el territorio sin dejar zonas aisladas, y que sea económicamente asequible para cualquier persona.

<https://eh.lahaine.org/exigimos-que-se-paralicen-los>